Oihana begiratu

Oihanean nola ibil ?

© MIFEN

Oihanpeko landareak eta zuhaitzak ez ditut andeatuko edo hondatuko bizidunak direlako.

© MIFEN

Animaliei azantzik egin gabe eta beldurrarazi gabe behatuko diet.

© De Joantho

Onddoak eta loreak hein batean baizik ez ditut bilduko.

© MIFEN

Oihanzainaren lana errespetatuko dut.

© MIFEN

Oihanean bilduko ditudan animalia xeheak errespetatuko ditut eta hartu ditudan tokian bizirik utziko.

© MIFEN

Haizu ez dena ez dut eginen :
- Surik ez dut eginen.
- Zakurrik ez dut laxoan utziko.
- Debekatuak diren oihanbideetan ez naiz ibiliko.
- Hondakinik ez dut oihanean utziko.

Izena :		Eguna

Euskaldunon egunkaria
2000/04/02

Iratiko oihana babesteko neurriak hartuko ditu Garaziko sindikatuak

Hamabost urteko plangintza finkatu du 4.000 hektareako oihana garatzeko

Lutxi Fourcade/Donibane-Garazi

Axola gutxi luzaz erakutsi ondoren, Iratiko oihana babesteko asmoa du Garaziko sindikatuak. ONF, Oihaneko Batzorde Nazionalarekin batera, oihana zaintzeko eta garatzeko 15 urteko plangintza aurkeztu berri du Iratin. Proiektua eztabaidatua izanen da datozen egunetan.

Garaziko sindikatuak biltzen ditu 20 herri, eta 17.000 hektareako lur eremu zabala kudeatzen du Nafarroa Beherean. Lur gehienak alorrak badira ere, 4.000 hektarea dira oihan. Aspaldiko ondarea izanez, Garaziko sindikatuak gogoeta sakona abiatu du oihanak garatzeko ONF taldearekin batera.
"Lehen oihana hor zegoen eta baliatzen genuen inolako kasurik eman gabe ; gaur egun, ohartzen gara geroari pentsatu behar diogula, oihan emankorra eta ederra uzteko gure haurreri" adierazi zuen Beñat Oilarburu, sindikatuko idazkariak.

Geroari buruzko neurriak finkatzeko, sindikatuak galdegin zion ONF-ri proiektu konkretua osatzea eta ONF-ko langileek zeharkatu dute eremu zabala egoeraren balantze zehatza egiteko. "Pagoak dira nagusi oihanean %90 eta abere ugari bizi dira zuhaitz artean : alabaina, azpimarratu behar da oihanaren oreka eskasa, zuhaitzen berritzearen aldetik edo azpiegituren aldetik, azaldu zuen Marc Pascouauk, ONF-ko ordezkariak.

Egoerari aurre egiteko, epe luzerako eta epe laburreko helburuak finkatu dituzte elkarrekin, gogoan atxikiz funtsezko helburua dela laborarien erabilpena garatzea. "Oihana babesteaz gain, oreka aurkitu behar dugu artzainen aktibitatearekin, eskualde honetako lehen aktibitatea baita 60.000 ardiekin" azpimarratu zuen Oilarburuk. Era berean, bigarren helburu nagusia izanen da oihanaren zaintzea geroari pentsatuz. Jakinez egur salmentak garrantzitsuak direla sindikatuaren bizian. Erran behar da egurraren saltzeak ziurtatzen duela aurrekontuaren herena eta oihana garatzeko, diru iturri funtsezkoa dela sindikatuarentzat.

Plangintzaren arabera, 500.000 liberako obrak eginen dira urtero, hamabost urtez. Eremu handia baita, ONF taldeak plangintzaren etapa nagusiak finkatu ditu. "Arbolen berritze naturala bultzatzeko, zerradurak edo itxiturak egin beharko dira, artzainen eremuak errespetatuz" azaldu zuen Pascouauk. Era berean, landare gazteak sailkatuko eta hautatuko dituzte, azkarrenak atxikitzeko bakarrik. Zuhaitz mozteak ere aurreikusiak izanen dira zenbait urte lehenago, ahantzi gabe gazteak kendu beharko direla tokia uzteko besteei.

Izena :		Eguna

14/3 Titulua :	Helburua :	Gaiari doakion jakintasuna :	Hizkuntzari doakion jakintasuna :
Oihana nola zain			

Oihan desberdinak

Argazki hauei artoski begira ezazu eta gurutze batez marka :

- berdez animalia eta zuhaitz mota anitz duketen oihanak,

- gorriz animalia eta zuhaitz mota gutikoak.

© MIFEN/De Joantho

© MIFEN/De Joantho

© MIFEN/De Joantho

Izena :	Ikas neurria			Norekin egina			Eguna :
	ona	artekoa	eskasa	heldu batekin	lagun batekin	bakarrik	

14/4 Titulua :	Helburua :	Gaiari doakion jakintasuna :	Hizkuntzari doakion jakintasuna :
Oihana nola zain			

Marrazki honi begira. Gorriz ingura egin behar ez dena.
Ondotik, bi kasutan bederen, jendeak zergatik gaizki egiten duen esplika.

. . . . . .

. . . . . .

. . . . . .

. . . . . .

. . . . . .

Izena :	Ikas neurria			Norekin egina			Eguna :
	ona	artekoa	eskasa	heldu batekin	lagun batekin	bakarrik	

14/5 Titulua :	Helburua :	Gaiari doakion jakintasuna :	Hizkuntzari doakion jakintasuna :
Oihana nola zain			

Oihana errespeta

Oihanean nola jokatu behar den, lau erranalditan errazu.

1 . . . . . .

2 . . . . . .

3 . . . . . .

4 . . . . . .

Lehen ariketa egina duzunean, proposamenak eztabaida zure lagunekin eta oihanaren gerizatzeko lege bat elkarrekin asma.

Oihanaren gerizatzeko legea

. . . . . .

. . . . . .

. . . . . .

. . . . . .

. . . . . .

. . . . . .

Izena :	Ikas neurria			Norekin egina			Eguna :
	ona	artekoa	eskasa	heldu batekin	lagun batekin	bakarrik	